

I. ERANSKINA

ESKABIDEA EGITEKO JARRAIBIDEAK

Laguntza-mota honetara jo nahi duen eskatzaileak eskabide-orria behar bezala bete behar du eta, izenpetu ondoren, finkatutako epean eta moduan aurkeztu behar du. Horretarako, euskadi.net web guneko "Euskara" atarian dagoen eredu normalizatua (I.A. eranskina) erabili beharko da.

Oharra: jarraibide-orri honetan aipatzen diren eranskin guztiak euskadi.net web guneko "Euskara" atarian daude.

Horrez gain, eskabide-orriarekin batera honako hauek ere aurkeztu beharko ditu eskatzaileak:

ESKATZAILEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

1.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egiaztatuko du eskatzaileak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak kitatuta dituela, elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

2.- Zerga-betebeharrak.

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritzak egiaztatuko du eskatzaileak zerga-betebeharrak kitatuta dituela, elkarreraginkortasun-sistemen bidez.

Hala ere, eskatzaileak helbide fiskala Nafarroako Foru Erkidegoan edo Espainiako Estatutik kanpo baldin badu, eta kontuan hartuta elkarreraginkortasun-sistema oraindik ez dagoela erabilgarri kasu horietan, eskatzaileak honako hau aurkeztu beharko du: zerga-betebeharrak kitatuta dituela adierazten duen ziurtagiri eguneratua, gehienik ere sei (6) hilabete lehenago egindakoa eta organo eskumendunak emana.

Agiri horiez gain:

3.- Pertsona fisikoa baldin bada:

3.1.- NANaren edo pasaportearen fotokopia (baldin eta I.A. eranskinean dokumentu hori balidatzeko baimena ematen ez bada).

3.2.- Ekonomi Jardueraren gaineko Zergari dagokion izen-emate agiriaren fotokopia.

3.3.- Autonomoen Erregimenean edo, hala badagokio, dagokion lan-mutualitatean alta emanda dagoelako agiriaren fotokopia.

4.- Pertsona juridiko pribatua baldin bada:

4.1.- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariaren NANaren edo pasaportearen fotokopia (baldin eta I.A. eranskinean dokumentu hori balidatzeko baimena ematen ez bada).

4.2.- Entitate eskatzailearen legezko ordezkariak lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiri eguneratuaren fotokopia.

4.3.- IFZren fotokopia.

4.4.- Entitate eskatzailearen eratze-eskrituraren fotokopia. Elkarteen kasuan, eratze-aktarena.

4.5.- Entitateko estatutuen fotokopia, edo entitate eskatzailearen jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituen agiriarena.

4.6.- Eratze-eskriturak edota estatutuak dagokien Erregistro Publikoan inskribatuta daudela egiaztatzen duten ziurtagirien fotokopiak.

Entitateak ez ditu aurkeztu behar izango 4.4, 4.5 eta 4.6 idatz-zatietan adierazitako agirien fotokopiak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko Erregistroan dagoen **fundazioa edo elkartea** bada. Izan ere, kasu honetan Administrazioak ofizioz egiaztatu ahal izango du Erregistroan dagoela, eta nahikoa izango da entitate eskatzaileak hori adieraztea I.A eranskinean.

Zehaztutako 3. eta 4. ataletako agirietakoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada eta indarrean jarraitzen badu, eskatzaileak ez du aurkeztu behar izango. Edozein modutan ere, eskatzaileak Eskabide-orrian (I.A eranskinean) adierazi beharko du agiri horiek noiz eta zein Sail edo Zuzendaritzatan aurkeztu dituen.

Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkezten duenean, erantsi beharreko dokumentazioa bakarra izan daiteke eskabide-orri guztientzat.

Pertsona fisiko edota juridiko pribatu batek baino gehiagok gauzatzekoa den egitasmoaren kasuan, elkartutako pertsona fisiko edota juridiko pribatuen ordezkari bakar bat izendatuko da diru-laguntzaren inguruko betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa emanaz. Ahalmena izango du, halaber, guztiak ordezkatzuz eskabidea aurkezteko. Eskabidea egiterakoan argi eta garbi zehaztu beharko dira pertsona fisiko edota juridiko horietako bakoitzaren nortasuna, ardura eta egitekoa egitasmoaren baitan. Era berean, honako hauek aurkeztu beharko dira:

a.- Aipatu ordezkariak ahalmena duela adierazten duen agiria.

b.- Elkarrekin arituko diren pertsona fisiko edota juridiko pribatu bakoitzak aurrekontuaren atalean daukan parte-hartzea, hau da, adierazitako aurrekontua betetzerakoan, zehaztu beharko da bakoitzaren parte-hartzea, bai gastu-aurrekontuan, bai eta sarrera-aurrekontuan ere.

c.- Elkarrekin arituko diren pertsona fisiko edota juridiko pribatu bakoitzari dagozkion agiriak (eranskin honetako 1., 2., 3., eta 4. puntuetan zehaztutakoak).

d.- Lankidetzaren terminoak jasoko dituen agiria. Agiri horrek elkartutako pertsona fisiko edota juridiko pribatu bakoitzeko legezko ordezkariak izenpetua egon beharko du, eta beti ere diru-laguntzaren betebeharrak betetzeari begira.

I. B ERANSKINA: EGITASMOAREN AZALPENA

Egitasmoaren azalpena I.B Eranskinean (Egitasmoaren azalpen teknikoa) datozen atal GUZTIAK zehatz-mehatz betez gauzatu beharko da.

Kontuan hartu: eranskin horretan emandako informazioari esker balorazio-batzordeak egokiro ekin ahal izango dio bere egitekoari. Hau da, **bertan emandako informazioaren arabera baloratuko da egitasmoa eta balorazio horretan lortutako puntuekin lehiatuko da gainontzeko egitasmoekin.**

Ez erantsi, mesedez, behar-beharrezkoa ez bada, inongo orririk. Eredutxo honi jarraitu behar zaio, ezinbestean.

Horrez gain, gogoratu: eranskin honetan jaso beharreko datuak 2012. urteari dagozkionak behar dute izan, horietatik baitira oraingoan diruz lagunduko direnak.

Deialdi honetan bi multzo daude: **A multzoa** (Euskarazko atari eta web guneak edo Internetarako euskarazko eduki berriak), eta **B multzoa** (Softwarea euskaraz sortzea edo eta euskarara lokalizatzea). Deialdira aurkeztutako egitasmoa A multzokoa bada, honako eranskin hau bete beharko duzu: **I.B Eranskina (Egitasmoaren azalpen teknikoa_A multzoa)**, eta egitasmoa B multzokoa bada, eranskin hau bete beharko duzu: **I.B Eranskina (Egitasmoaren azalpen teknikoa_B multzoa)**.

A multzoko egitasmoen barruan honako mota hauetako egitasmoak sar daitezke:
- Euskarazko web gune berria sortzea.

- Dagoeneko eginda dagoen euskarazko web gunean berrikuntza teknikoak egitea.
- Dagoeneko eginda dagoen euskarazko web gunean euskarazko edukiak sartzea.
- Dagoeneko beste hizkuntza batean sortutako web gunea euskarara lokalizatzea.
- Interneterako euskarazko eduki berriak sortzea.
- Interneterako edukiak euskarara itzultzea.

B multzoko egitasmoen barruan honako mota hauetako egitasmoak sar daitezke:

- Euskarazko softwarea sortzea.
- Dagoeneko beste hizkuntza batean eginda dagoen softwarea euskarara lokalizatzea.
- Dagoeneko eginda dagoen euskarazko softwarea berritzea / eguneratzea.

I.C ERANSKINA: EGITASMOAREN AURREKONTUA

Egitasmoaren aurrekontua I.C Eranskina (Aurrekontua) betez gauzatu beharko da. Ezinbestekoa da eredu hori erabiltzea.

Honako atal nagusi hauek osatzen dute aurrekontua:

1. Adierazitako gastu-aurrekontua.
2. Adierazitako sarrera-aurrekontua.

Gastu-aurrekontuak, guztira, bat etorri behar du sarrera-aurrekontuarekin (aurrekontu orekatua). Hau da, egitasmoa gauzatzeko aurreikusitako gastuak estaltzeko zein diru-sarrera aurreikusi den adierazi behar da.

1.- Adierazitako gastu-aurrekontua.

Honako atal hauek osatzen dute gastu-aurrekontua:

- Langile-gastuak
- Funtzionamendu-gastuak
- Bestelako gastuak

Langile gastuak dira:

- Pertsona fisiko edo juridiko pribatuaren langileek egitasmoa gauzatzeko behar izan dituzten orduetako dagozkien gastuak (pertsona juridiko pribatuaren kasuan, nomina bidez eta Gizarte Segurantzako TC1 eta TC2 agiriaren bidez justifikatu beharrekoak; pertsona fisikoen kasuan, gastu horiek nomina bidez eta Gizarte Segurantzako TC1 eta TC2 agiriaren bidez justifikatu daitezke, edo dagokionean, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez).
- egitasmoa gauzatzeko pertsona fisiko edo juridiko pribatuak kanpoan kontratatutako zerbitzuei dagozkien gastuak (faktura bidez justifikatu beharrekoak).

Langile-gastuen atalean honakoak zehaztu behar dira: egitasmoa gauzatzeko zein jarduera edo ekintza egin behar izango den (1.C Eranskinean agertzen den zerrendako eginkizun edo atazen artean aukeratu behar da ezinbestean); jarduera bakoitzari dagokion modulu, hitz edota testu kopurua; jarduera bakoitzerako zenbat ordu aurreikusten den urtean; eta azkenik, diru-aurreikuspena jarduera bakoitzerako. Derrigorrezkoa da datu guztiak ematea.

Oharra: Langile-gastuen atala betetzeko hainbat argibide behar izango duzu; izan ere, moduluak, hitzak edo diseinuak sailkatu egin beharko dituzu zailtasun-mailaren arabera. Horretarako, hau da, neurri-parametroak zeintzuk eta nolakoak diren jakiteko, argibide-orri bat prestatu dugu, hain zuzen, I.C Eranskineko 4. orrian aurkituko duzuna.

Funtzionamendu-gastuak dira: telefonoa, argindarra, bidaiak eta dietak... guztiak ere egitasmoaren gauzatzearekin lotuta. Gogoan hartu: patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsioak ez dira sartzen; adib. ordenagailu, argazki-kamera eta abarrekoen erosketak ezin dira diruz lagundu.

Bestelako gastuetarako atal bat ere gorde da. Atal horretan argi eta garbi zehaztu beharko da zein den gastua, eta ezin izango da aurrekontuaren % 5 baino gehiagoko gastua izan.

2.- Adierazitako sarrera-aurrekontua.

Honako atal hauek osatzen dute sarrera-aurrekontua:

- Finantzaketa propioa.
- Finantzaketa publikoa:
 - o Deialdi honen bidez eskatutako diru-kopurua.
 - o Beste erakunde publiko/Eusko Jaurlaritzako Sail batzuetatik egitasmo honetarako eskatutako/jasotako diru-kopurua.

Finantzaketa propioak, gutxienez, gastu-aurrekontuaren % 40a izan behar du.

Honako hauek batuta osatzen da finantzaketa propioa: eskatzailearen diru-ekarpena, zerbitzu-salmentatik eskuratutakoa, produktu-salmentatik eskuratutakoa, publizitatetik eskuratutakoa, entitate pribatuen diru-ekarpenak. Horiek guztiak batuta ateratzen den guztirakoa da finantzaketa propioaren atalean adierazi beharreko kopurua.

Deialdira aurkeztutako egitasmoa gauzatzeko bestelako finantzaketa publikorik eskatu baldin bada, horren inguruko datuak zehaztu beharko dira sarrera-aurrekontuan: diru-laguntza non eskatu den, zenbateko kopurua eskatu den eta diru-laguntza eskaera zein egoeratan dagoen (eskatuta eta esleituta; eskatuta baina oraindik esleitu gabe; edo oraindik eskatu gabe baina eskatzeko asmotan).

Kontuan hartu diru-laguntza justifikatzeko orduan jasotako finantzaketa publiko guztia batuko dela, eta gainfinantzaketarik egonez gero, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo dela kitapen-ebazpen baten bidez.

Behin finantzaketa propioa eta bestelako finantzaketa publikoa zehaztuta, eranskinak berak emango du egitasmoaren defizitari dagokion kopurua.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutakoa ere zehaztu egin beharko da sarrera-aurrekontuan. Eskatutakoak ezin izango du egitasmoaren defizita gainditu.

ORDAINKETAK EGITEKO AGIRIA

Ebazpena aldekoa denean Administrazioak ordainketak egin ahal izateko, beharrezkoa da Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean ordainketak egiteko behar diren datuak erregistratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Orokorraren irailaren 30eko 211/1997 Dekretuaren 20. artikuluan araututakoaren arabera. Horretarako, bi aukera daude:

a.- "I.D Eranskina_Hirugarrenaren datuen alta" izeneko inprimakia betetzea. Inprimaki honetan, guztiz beharrezkoa da bankuaren adostasuna (zigilua eta sinadura), bai eta erakunde eskatzailearen legeko ordezkariaren sinadura ere.

b.- Aurrezki-libretaren edo kontu korrontearen libretaren kopia, edo banku-erakundeak (banketxeak edo aurrezki-erakundeak) emandako edota ziurtatutako dokumentuarena; bertan honako datu hauek agertu behar dira gutxienez:

- b.1.- Banku-erakundearen izena.
- b.2.- Banku-erakundearen helbidea.
- b.3.- Kontuaren zenbakia (20 digitu).
- b.4.- Kontuaren titularra. Hori eta hirugarren interesduna pertsona bera izan behar da.

Edozein modutan ere, ORDAINKETAK EGITEKO AGIRIA kasu honetan soilik aurkeztu behar da: eskatzailea ez badago alta emanda Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ordainketak egiteko kudeatzen duen «Hirugarrenen erregistroa»n, edota, alta emanda egonda ere, azken hiru urteetan ez badu eragiketarik egin Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin, bai eta «Hirugarrenen erregistroa»n badagoen banku-datu edo helbideratze-daturen bat aldatu nahi badu ere.